

uk

127. zenbakia / 2007 azaroak 13



Salón del cómic y manga de Getxo

Getxoko VI. komiki eta manga azoka

11.00-14.30 / 17.00-21.00

PLAZAS ESTACIÓN DE LAS ARENAS y SANTA EUGENIA DE ROMO (BIZKAIA) 23.24.25 AZAROA NOVIEMBRE



MAI 2007

PREZIOA

2€

(PARA TODO EL DÍA/EGUN OSORAKO)

*CON LA ROJA DEBBK + 1 GRATIS

www.salondelcomicedegetxo.net

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. 163 ikutu. Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Arriluze.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Isabel Atxa.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Julen Billelabeitia, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Erandio.
30. BERBETAN. Lucio Urtubia, Jokin Aspuru.
34. FOTOGRAFIA. Getxo, orotzapen ahaztuen bilduma.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Barton Films-en eskaintza.
43. MUSIKA. Leioa, rock eta poesia. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Heldu berriak. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Getxo Rugby Argentinarako bidean.
46. ELKARRIZKETA. Asier Zurinaga.


AMAITZEKO

49. NORA JOAN? Adibidez, Algortako La Suizara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Saratzaga ikastetxea 1957an, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Andoni Aizpuru, Maitane Nerekan.

Azaleko argazkia, Saratzaga ikastetxea, 1953 (Getxoko Udal Liburutegia)



30 Lucio Urtubia



11 Isabel Atxa

Berbetan

Nafarroako semea, anarkista eta igeltseroa. Berari buruzko filmea aurkeztu berri da. Bera eta bere bizitza txundigarria ezagutu nahi izan ditugu.



46 Asier Zurinaga



34 Getxo, orotzapen ahaztuen bilduma



23 Itziar Elorriaga



54 Andoni Aizpuru

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com


BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubra 171
 Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Menbeka
TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia
KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bitor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK




gugeu

Azaro oparo

Ez dakigu horrela ote den baina sartu berri garen hil honi izena ei datorkio azen aroa delako. Neguaren ateetan eta udako uzta oparoak eta gero, ezer gutxi ematen dute ortuek garai honetan. Horixe, azak. Baina bestelakoetan, eta kulturaz ari gara, oparoa, oso oparoa izango da 2007ko azaro hau gure eskualdean. Hilaren akabuan egingo da Getxoko Komiki eta Manga Azoka, gero eta handiagoa dena; Getxon ere bai, Euskal Kulturaren jardunaldiak egingo dira, aurten egitaraua ederra da; Erandion, Lutxana auzoan, Azaro Kulturalak antolatu dituzte (musika, antzerkia, ikastaroak....) eta Erandiotik irten barik, aipagarriak ere badira herriari buruzko toponimiaren gaineko erakusketak eta hitzaldiak; Leioan Rock eta Poesia jardunaldiak egingo dira. Horiexek eta hemen aipatzeko lekurik ez daukagun beste gauza asko edukiko ditugu Uribe Kostan. Horien guztien berri ematen ahalegindu gara UK honetan.

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

no comment > agur Gorlizko Haizea taberna!



ERANDION, 2007KO URRIAREN 26A

Errekorra / Munduko errekor bitxia hautsi zuen Erick Hernandez kubatarrak Erandion: 30 segundutan buruarekin baloiari 163 kolpe baino gehiago eman behar izan zizkion. Baloiarekin oso trebea da Hernandez, izan ere aurretik beste marka batzuk ere lortuak ditu, esaterako, 42 kilometroko maratonia egin zuen baloiari kolpeka, edota jesarrita ordu bi eta 43 minutuz gauza bera egiteko gauza izan zen. Erandioko saiakera Euskadi-Kuba elkarteak antolatu zuen, aldi berean bertokoei Kubako ereduaren berri emateko. ○ / Argazkia: **Eduardo Camino**

ERAKUSKETA ETA HITZALDIAK ERANDIOKO TOPONIMIA ERANDIO EXPOSICIÓN Y CHARLAS



¿Cuál es el nombre apropiado en euskera para el barrio Fanos?

Zelín da Fanos auzoaren euskarazko izen egokia?

¿Sabía que a la calle Ollaga el nombre le viene del baserri que se llama Oleaga?

Badakizu, Ollaga kaleari Oleaga izeneko baserriak datorkiola izena?

¿Y que el alto de Kukularra es el monte Galarraga?

Eta Kukularra ez dela muinoaren izena, Galarraga baizik?

ERAKUSKETA

Azaroaren 6-10
Astrabuduan (Josu Muruetan)
Azaroaren 13-17
Pitzagan (Erakusketa Gelan)
Azaroaren 21-24
Erandio Goikoan
(Udaletzetako Zaharlean)

ORDUTEGIA
17:00 - 20:00
11:00 - 13:30 (Zapatuetan)

HITZALDIAK

HIZLARIAI: Iratxe Laso (Erandioko toponimia jaso duena eta Euskaltzaindiako Onomástico Bazarreko kidea)

Azaroaren 6an
Astrabuduan, Josu Muruetan, 20:00
Azaroaren 13an
Pitzagan, Erakusketa Gelan, 20:00
Azaroaren 21ean
Erandio Goikoan, Udaletzetako Zaharlean, 20:00

EXPOSICIÓN

6-10 noviembre
Astrabudua (Josu Muruetan)
13-17 noviembre
Pitzaga (Sala de exposiciones)
21-24 noviembre
Erandio Goikoa
(Antiguo Ayuntamiento)

HORARIO
17:00 - 20:00
11:00 - 13:30 (Sábados)

CHARLAS

PONENTE: Iratxe Laso (Experto en toponimia de Erandio y miembro de la comisión de Onomástico de Euskaltzaindia)

6 noviembre
Astrabudua, Josu Muruetan, 20:00
13 noviembre
Pitzaga, Sala de exposiciones, 20:00
21 noviembre
Erandio Goikoa, Antiguo Ayuntamiento, 20:00



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE 1950-2007

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > urrunetik parera



Gorliz, 2007ko urria

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Begi bietan sortu den ilusioa, zer da ikusten dena, noren desioa? Segun nolakoa den baten bisioa izan ahal da ninien satisfazioa edo perfektuaren inperfekzioa.

2

Ontzia eman arren, zer dauka ontzitik? Olatuen jainkoa ote den ez dakit, baina hala dirudi hodeien ertzetik: zaharrak hiltzen ditu ebaki hutsetik berriak sor daitezen zauri bakoitzetik.

3

Belauntzi txiki bat da orain parez pare handia ematen du gertutik halere. Uste du libre dela, munduaren jabe, itsasoan bakarrik, ura bakardade, baina ez al da bizi haizearen mende?

* Doinua: Agur sagar beltzaran

Bizkaiko zubia > eraikinari buruzko dokumental bi ekoiztu dituzte



SWR kate alemaniarra eta TBS japoniarra izan dira dokumentalon egileak

SWR kate publiko alemaniarrek irailean egin bezala, Bizkaiko Zubia protagonista duen dokumental bat ekoiztu du TBS telebista kate japoniarrek urrian. Lehenengoak, UNESCO Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen aginduz sortu zuen dokumentala; izan ere, Gizadiaren Ondare izendatuak izan diren 300 monumentuen gaineko ikus-entzuneke lanak ekoiztu ditu kate alemaniarrek. Ordu laurdeneko iraupena du eta zubiaz gain, zubi azpitik pasa diren ontzien irudiak ere biltzen ditu. Kontu handiz egindako lana izan da eta enkoadraketa egokienak bilatu dituzte. TBS kate japoniarrarena, aldiz, Nazio Batuen Erakundearen kultur-fitxategia osotuko duen ordu erdiko dokumentala izango da. Formatu digitalean ekoiztuko dute eta Bilbo, Getxo eta Portugaleteko kale eta biztanleen irudiak erakutsiko ditu. ○

Galeako gotorlekua > 600 pertsonak hartu dute parte bisitetan



Simulacro Teatro taldea arduratu da sketchak antzezteaz

“Arrakasta borobila” izan dute Bizkaiko Foru Aldundiak Getxoko Udalarekin lankidetzan antolatutako Galeako Gotorlekurako bisita gidatu-antzeztuek. Hauetan parte hartu duten bisitarien %99 bizkaitarrak izan dira eta hauetatik %40 Getxokoak. Turismo Bulegoak egindako inkestaren arabera, Simulacro Teatro Getxoko taldeak egindako sketchak izan dira arrakasta gehien izan dutenak, Aranzadi Institutuko partaideek bisitaldian zehar eskainitako informazioaren mailarekin batera. Jardunaldien helburua Galeako Gotorlekuaren gaineko historia ezagutaraztea izan da, Bizkaian XVIII. mendean egindako eta gaur egun hobekien zaindutako defentsa eraikina den aldetik. Bisitariak, *“bisita gidatuaren programa egun gehiagotan egitea eta beste baliabideetara zabaltzea”* eskatu dute. ○

saiazgetaria



HOTELA


Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehenago garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

argitalpena > *Biraoak Nafarroan bilduak* liburua kalean



Euskara biraoak ez dituen hizkuntza garbia dela esaten duen mito hori okerra dela frogatzeko, *Biraoak Nafarroan bilduak* liburua idatzi dute Juan Jose Zubiri eta Patxi Salaberri euskaltzainek. Nafarroan esaten diren madarikazio guztiak bildu eta haien esanahia azaltzen dute lan honetan. Marimatraka, pixeluze, toxagorri edo oilokaka dira besteak beste aurkitu ahal izango ditugun irainetako batzuk. Liburuak lau atal ditu: lehenengoan, Nafarroan erabiltzen diren biraoak biltzen dira; bigarrenean, adieraren arabera zerrendatzen dira; hirugarrenean, birao indargarriak hau da, birao bati indarra ematen dioten madarikazioak sailkatu dituzte; amaitzeko, euskal literaturan topatu dituzten birao eta madarikazioak zerrendatu dituzte. Erdaraz ez bezala, euskaraz jainkoei eta santuei erreferentzia egiten dioten madarikazio gutxi daude. Aldiz, deabrua askotan aipatzen dugu eta animaliak askotan erabiltzen ditugu lagunak ez direnak iraintzeko. Astopoulio halakoak! ○

Animaliak askotan erabiltzen ditugu lagunak ez direnak iraintzeko

telefonía > mugikorretan euskararen presentzia indartu nahian



Eusko Jaurlaritzak eta telefonía mugikorreko hainbat operadorek (Eroski, Euskaltel, Telefonica, Vodafone eta Yoigo) eta ekoizleek (Alcatel, Nokia, Samsung eta Sony Ericsson) mugikorretan euskararen presentzia bermatzeko hitzarmena sinatu dute. Honen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan saltzen diren telefonoetan euskara menurako aukera bezala agertu beharko da. Honez gain, operadoreek gestioak euskaraz burutzeko aukera eman beharko diete bezeroei. Jaurlaritzak, bere aldetik, doako hizkuntza-aholkularitza zerbitzua eskainiko die enpresei eta hauek euskararen esparruan aurrera eramaten dituzten ekimenen berri emango diote euskal gizarteari. Hitzarmenaren ondorio praktikoak 2008tik aurrera hautemango dira. Euskara hizkuntza bizia izaten jarraitzea bermatu nahi da ekimen honekin. ○

Erdara hutsean daude gaur egun mugikor guztien menuak

[erretratua]



"Ezer eskatu baino lehen zerbait eman beharko dut nik", dio Isabel Atxak

Isabel Atxa > Getxoko Odol Emaileen Elkarteko lehendakaria

Elkarrizketa hasi bezain pronto, eta bizitza erdia baino gehiago Getxon eman badu ere, oñatiar peto-petoa dela argi utzi digu Isabel Atxak: "Semeak getxoztarrak sentitzen dina; ez dago zer eginik". Arrasateko kooperatiban lanean zegoela eman zuen odola lehenengoz: "Ebakuntza egin zioten kooperatibako lankide bati eta odola eskatu ziguten; oso esperientzia ona izan zen niretzat". Orain dela 13 urte Bihotz Handi Getxoko Odol Emaileen Elkartearekin lan egiten hasi zen: "Bidezabaleko ambulatioria hurbildu nintzen odola ematera eta han zegoen gizon batek elkartean parte hartzera bultzatu ninduen; gero badakizu, gura izanez gero korapiloa berehala egiten da". Elkartean ekinean dabilzanak 10 bat diren arren, 900 emaile inguru daude Getxon: "Oso gutxi dira Getxo bezalako herri handi batean". Odola behar-beharrezkoa da: "Ez du minik ematen eta oso baliagarria da. Ez dago odola ordezkia dezakeen produktu kimikorik". Kexuka ibiltzea baino, gauzak aldatzen ahalegintzea gehiago merezi duela uste du Isabelek: "Zer gizarte uzten dugun pentsatu beharrean, gizarte honi ze seme-alaba uzten dizkiotan pentsatzen dut nik; ezer eskatu baino lehen, nire aldetik zerbait eman beharko dut". Ahoz-ahoko propaganda eraginkorrena da: "Hala ere, probatu arte ez dago odola ematea zer den jaktierik. Badakizue: probatu!". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Antzokia eraitsi, berria eraikitzeke

Getxoko Udalak **22 milioi euroko** aurrekontua bideratu du eraikin berriaren lanetarako eta Espainiako Gobernuak 2008an **2 milioi euroko** diru-laguntza berria emango duela jakinarazi du

Aspaldi iragarri bazuten ere, gero eta hurbilago dago, San Nikolas plaza alboko antzokia laster botako dute. Gaur egungo Getxo Antzokiaren errautsetatik altxatuko dute *“udalerrirako eraikin enblematikoa”* izango dena, *“funtzio-anitzeko gunea, aurreratua eta modernoa”* izango den Getxoko antzoki berria. Eta horrek lehenengo aldiz atek zabalduko dituen data ere aurreratu dute.



Antzoki berria egur, altzairu eta beiraz estalita egongo ei da

Getxoko antzoki berria eraikitzeke Espainiako Estatuak emango duen diru-laguntzaren berriaren albotik egitasmoaren beste zenbait nondik norako argitu ditu Getxoko Udalak, berbarako: ezagutzen dugun antzokia eraisteko lanak noiz hasiko dituzten, eraikin berria noizko zabal litekeen eta eraikitze lanetarako Udalak prestatu duen aurrekontua.

Hala, 2008ko Espainiako Aurrekontu Orokorrek Getxoko antzoki berria eraikitzeke 2 milioi euroko diru-laguntza aurreikusten dutela jakinarazi du egunotan Margarita Urie Euskal Taldearen diputatuak. EAJk eta PSOEek Madrilen adostutako akordioaren ondorioz gauzatu da diru-laguntza eta zenbateko hori Espainiako Estatuak aurreko urteetan ere emandako 3 milioiei gehitzen zaie. Uriak azaldu duenez hurrengo urteetan antzoki berria altxatzeko Madrilen laguntza lortzen jarraitzea espero du, hori martxoko Espainiako hauteskundeetako irabazlearen baldintzapean egongo bada ere.

Getxoko alkate Imanol Landak antzoki berria eraikitzeke duen garrantzia azpimarratu du: *“Eraikin enblematikoa izango da udalerrirako; funtzio-anitzeko gunea, aurreratua eta modernoa”*. Horren albotik egitasmoaren inguruko zenbait datu aurreratu ditu: *“epe guztiak betetzen badira, egungo Getxo Antzokia bertan behena botatzeko lanak datoren urtarilean has litezke”* eta *“Getxo Antzoki*

«Getxo Antzokia botatzeko lanak urtarilean has litezkeela iragarri dute udal arduradunek»

berriaren inaugurazioa 2011ko lehenengo hilabeteetan izan liteke”. Horrez gainera, eraikin berria altxatzeko 22 milioi euroko aurrekontua zehaztu dute.

Aurreproiektuan lanean dihardu Juan Mari Uriarte arkitektoak, egitasmoari aur-

keztutako alegazioak bideragarriak diren ala ez zehazteko. Akordura ekarri behar da antzoki berriak 800 eserlekuko areto nagusia edukiko duela eta 250 lagunentzako bi areto txikiagoak; Musika Eskola ere bertan lekutuko dute eta eraikina egur, altzairu eta beiraz estaliko dute.

Horrenbestez, *Gran Cinema* eta beste agurtzen joan beharko dugu, eta aurrerabideak han bizitako momentu ahaztezinak lakoak bizitzeko aukera emango digula sinetsi dezagun. ○

Datu batzuk

- **Eraispena:** 2008ko urtarilean has liteke.
- **Eraikin berria:** 2011n zabal ditzake atekak
- **Udalaren aurrekontua:** 22 milioi euro
- **Espainiako azken diru-laguntza:** 2 milioi
- **Arkitektoa:** Juan Mari Uriarte

Zergen eta tasen zenbatekoa izozteko asmoa du Tokiko Gobernu Taldeak



TAOren (aparkatzeko zerbitzua) prezioak gora egingo du hurrengo urtean

Getxoko Udaletik jakinarazi dutenez, datoren urtean ordaindu beharreko zergen eta tasen zenbatekoa “izozteko” asmoa du Tokiko Gobernu Taldeak, hau da, orain ordaindu beharreko kopuru berbera ordaindu beharko dute herritarrak 2008an, zerga eta tasa gehienak bere horretan mantenduko dituzte. Getxoko alkate Imanol Landak zehaztu duenez, *“tasak izozteak esan nahi du, azken finean, zergak jaitziko direla, urteko KPIz (Kontsumonako Prezioen Indizea) besteko igoerarik ez dutelako”*. Horren albotik, ugertokietan sartzeko abonodunek ordaindu beharreko euroen tasa ere bertan behera utzi dute. Alabaina, TAO guneetan aparkatzea %6 garestiagoa izango da hurrengo urtean, *“aurreko urteetan igo ez zen KPIaren balioaren arabera igoiko da”*.

Bestalde, familia ugarietako udal tasen

eta zergen gaineko ordenantzetan aurreikusitako hobari fiskalei (laguntzei) dagokienez, kolektibo hori bultzatzeko asmoz beste laguntza berezien ildoak zabalduko dutela iragarri du Getxoko alkate Imanol Landak.

Udalerriko enpresa eta merkataritza alorri dagokionez, 2008an zaborraren tasa izozteaz gainera, alorri emandako tratamenduaren inguruko azterketa sakona egiteko konpromisoa hartu du Gobernu taldeak. Halere, aurreko urtean %80 igo zen zaborren tasa dela eta, horren gainean eztabaidatzeko oposizioagaz hartu-emanetarako atea zabalduko dutela adierazi zuen EAJ alderdiak. Halere, erabakietako batzuk ez dira behin-betikoak. Prentsa oharrez azaldu duten legez, *“tasak eta zergek oposizioaren babesa jaso ezean 2008an bere horretan atxikiko dira (KPIaren igoera barik)”*. ○

TXIRRINDULAN IBILTZEA BULTZATZEKO HITZARMENA SINATUTA

Getxoko Udalak eta EEEK (Energiaren Euskal Erakundea) hiri barruan bizikletaren erabilera bultzatzeko hitzarmena izenpetu dute. Udalerriko alkate Imanol Landak adierazi duenez, *“Udalak hiru urtetan bizikletaren erabilera sustatzeko konpromisoa hartu du; EEEK 140.000 euro emango ditu ekintza horiek aurrera eramateko”*. Akordioaren barruan txirrindulak doan eskaintzeko udako zerbitzua dago eta aurreratu dutenez, zerbitzu horrek jarraipena izango du hurrengo bi urteetan. Horri lotuta hurrengo erronkak uzten diren bizikleten kopurua areagotzea eta hartzeko-uzteko lekuak ugartzea dira. Udan 2.487 lagunek erabili dute zerbitzua eta erabiltzaileen %27, 65 urtetik gorakoa izan zen.

AREETAKO LUDOTEKA URTE AMAIERARAKO

Areetako ludoteka berriak (Eskeletako plazan) urte amaierarako atek zabaltzea espero du Getxoko Udalak. Erromoko Ziztu Bizian, Algortako Eskubeltz eskaut taldeek eta Bilboko EDE fundazioak sortutako Aisibizia taldeak kudeatuko du zentroa 56.500 euroren truke. Ludotekak 100 bat lagunentzako lekua dauka eta 5-8 eta 9-12 urte bitarteko haurren txanda bi egingo dira (lehenengoak 17:00-18:30 eta bigarrenak 18:30-20:00). Lanegunetan zabalik egongo da jolasgunea eta Algortan ere antzerako bat zabaltzeko asmoa dute.

MOTORREN ZARATAK KONTROLATZEKO KANPAINA

Urtea amaitu baino lehen ziklomotorren eta motozikleten zarata kontrolatzeko beste kanpaina bat jarriko du martxan Udalak. Berrikuntza legez urtarilaren 1etik aurrera hiru urte baino gehiagoko ibilgailu horiek IAT (Ibilgailuaren Azterketa Teknikoa) igaro beharko dute. Gainera, egungo araudia betetzen ez duten gidariei karneta kendu eta ezohiko azterketa egitera behartuko dituzte.

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

IRATI moda gaztea opariak

Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Hil amaieran eta abendu hasieran

Euskal Kulturaren Jardunaldiak egitarau koloretsuz jantziko dituzte



Getxoko euskaldun zaharren testigantzak jasoko dituen dokumentala aurkeztuko da Jardunaldietan

Euskal kulturaren hainbat salta dastatzeko aukera egongo da hil amaieran, Euskal Kulturaren Jardunaldien egitaraua hamaika zapoz eta kolorez ondu dute-eta. Gutxi gorabehera azaroko azkenengo bi asteak eta abenduko estreineko egunak ikuskizun bezala egongo dira, ongari desberdineko ekitaldiak gozatzeko aukera edukiko du Algortara hurbiltzen denak: umorea, bertso-larritza, pailazoak, literatura emanaldiak, herriko toponimia berbaldia, kantaldiak, dantza ikuskizunak... Berbarako Euskal Kultura Jardunaldien barruan antolatuko

dituzten Umore Jardunaldiek (hainbat ekimen) zazpigarren urtea izango dute aurtengo, eta pasa den urteko arrakasta ikusita, oraingoan ere Euskara Showa ekimena pres-
«Umore Jardunaldiak, Euskara Showa, dantzak, pailazoak...» »
 tatu dute antolatzaileek. Aurreko urtean ekitaldi horregaz gozatu ez zuenakin jakin beza etorkinek eta bertokoek alkarregaz kantuan jarduten duten ikuskizun ederra dela. Amaitzeko, badago non gozatu, bakoitzak aukera dezala zein salta duen gogokoan! ○

Ekitaldiak

- **Azaroak 19, astelehena:**
-SMS eta bideo lehiaketa. Algortako Kasinoa. 20:00. Sarrera doan.
- **Azaroak 20, martitena:**
-Kantaldia: Estibaliz Asua; Iraide Bilbao eta Eneko Martinez. Piper's Irish Pub (Algorta). 20:00. Sarrera doan.
- **Azaroak 21, eguaztena:**
-Umore Jardunaldien barruan: *Honolulu leku bat*, Gilkitxaro taldea. Piper's Irish Pub (Algorta). 20:00. Doan.
- **Azaroak 22, eguena:**
-Umore Jardunaldien barruan: *Hala mintzatu zen Zapatrusta!*, Ander Lipus. Piper's Irish Pub. 22:00. Doan.
- **Azaroak 23, barikua:**
-Bertso Trama; Andoni Egaña, Xabier Paia, Amets Arzalluz eta Jon Maia. Algortako kultur etxea. 19:30. Doan.
- **Azaroak 24, zapatua:**
-Pailazoak: *Irriz irri*, Txirri, Mirri eta Txiribiton junior. Getxo Antzokia. 13:00 eta 17:30. Sarrera: 3,5 euro
-Txahal errea, sagardotegi ibiltaria, dantzaldia. San Nikolas plaza. 19:00.
- **Azaroak 25, domeka:**
-Dantza: *Bideak*, Aukeran taldea. Getxo Antzokia. 19:00. Sarrera: 7/9 euro.
- **Azaroak 27, martitena:**
-Literatura emanaldia: *Edan ase arte*, Txus Aranburu eta Mikel Perurena Ansa; Algortako kultur etxea. 20:00.
- **Azaroak 28, eguaztena:**
-Toponimia jardunaldia. Fadura.
- **Azaroak 29, eguena:**
-Umore Jardunaldiak: *Eman Bira*, Lakrikun. Piper's Irish Pub. 20:00.
- **Azaroak 30, barikua:**
-Euskara Show. Kasinoa. 21:00. Doan.
- **Abenduak 1, zapatua:**
-Kontzertua: Gose eta Logela Multimedia. Santa Eugenia plaza. 20:00
- **Abenduak 3, astelehena:**
-Mahai-inguruak: *"Kirolaren inguruan"* Algortako kultur etxea. 20:30
- **Abenduak 4, martitena:**
-*"Getxoko euskaldun zaharrak"* erreportajearen estreinaldia. Kasinoa.

Komiki eta Manga azoka

Azaroan antolatuko dute aurten istorio eta umore grafikoei begirako ekitaldi sorta



Karpapeko jardueraz (hilak 23-25) gozatzeko sarreren prezioa 2 eurokoa izango da

Ohiko epea aurreratu egingo dute aurten antolatzaileek, hala, VI. Komiki eta Manga Azoka edota aretoa hil honetarako prestatuko dute. Lehenengo urtea izango da hau Azokak manga deritzon komiki japoniarri leku berezia eskaintzen diona. Beste berrikuntza bat ere izango du aurtengo Azokak, Areetako Xake (Geltoki) plazakoaz gainera, Erromoko Santa Eugenia plazan ere lekutuko dutela beste karpabat (hor lekutuko dituzte mangari begirako ekimenak). Karpapean eskainiko diren lantegiak, film emanaldiak, 70 saltokiak, mahai inguruak, erakustetak eta abarrez gozatzeko datak hilaren 23tik 25era bitartekoak dira, baina badira beste ekitaldi batzuk epe horretatik kanpo, hau da,

beste egun batzuetara zabalduko du egitaraua aretoak. Horren ondotik, Zine-kluba (hilak 21) eta Cinema Paradiso (hilak 23) zine zikloek ere arreta ipiniko dute Azokan eta jardunaren inguruko film bana eskainiko dute. Bestalde, udalerriko beste leku batzuetan ere komikiagaz eta mangagaz lotutako erakustetak paratuko dituzte (Erromo eta Algortako erakustaretoetan, Algortako Satistegi kafetegian, Erromoko Jai Alai kafetegian, Areetako Gals kafetegian...).

Aurtengo Azokak Francisco Ibañez Talavera komikigileari (*Mortadelo y Filemon*, *Pepe Goteni...*) eta TMEO aldizkari gasteiztarri egingo die omenaldia. ○

Informazio gehiago: www.getxo.net

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA HILAREN 9AN

VI. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia hilaren 9an egingo da Getxo Antzokian (20:00). Bertan parte hartuko duten trikitilariak hurrengoak dira: Ken Keppeler eta Jeanie Mcleire (Mexiko Berria), Simone Bottasso (Italia), 21 Boutons Marinette Bonnet eta Pere Romani (Belgika-Katalunia) eta Euskal Herriko Agus Barandiaran eta Mikel Romero, Eneko Odiaga, Galder Elortza, Victor Muñoz eta Iruks Ansoategi. Sarrerek 6 euroko prezioa dute, eta horren ostean Trikesession-a antolatuko dute The Piper's Irish Pubean (Algorta).

GETXO, ITSASADARREKO ZELATARIA ETA ZAINZAILEA ERAKUSKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Getxoko Turismo Bulegoaren ekimenez *Getxo, Itsasadarreko zelataria eta zainzailea* erakusketa ikusgai egongo da udalerrian. Aurreko egunetan Algortako erakustaretoan egon ondoren, hilaren 6tik 10era Erromoko erakustaretoan egongo da gozagai.

GIZONENTZAKO LANTEGIA ANTOLATU DU BERDINTASUN ARLOAK

Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak *"Gizonok sexismoari aurre egiten. Geuk ere badaukagu zer esanik"* lantegia antolatu du. Gai horren gainean gizonetako prestakuntza jasotzeko eta hausnarketa bideratzeko lantegiari hilaren 8an emango diote hasiera, eguenero egingo da (6 saio; 19:00-21:30) Villamonte kultur etxean eta EHUren emakume eta gizonen arteko berdintasunaren gaineko masterdun Ibon Arrizabalaga sexologo donostiarrek emango du. Urtariletik aurrera interesa duten gizonetako parte hartzen jarraitu ahal izango dute hilean behineko saioetan.

Informazio gehiago: 94 466 01 30

www.aek.org

euskara
zure gaitasuna

URIBE KOSTAKO AEK 94 430 47 34

aek
coach berri

Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Juan Carlos Perez de Unzueta > Txileko kontsula

“Txilek betidanik izan du ikuspegi kultural garrantzitsua munduari begira”

Irailen Txileko kontsulatuak Bilboko egoitza utzi eta Leioara etorri zen. Kontsulatuak Hego Euskal Herria eta Errioxako txiletarrak hartzen ditu bere gain. Kontsulatu bat zer den galdeturik, Perez de Unzueta administrazio-leiho dela argitu digu.

—Zer da kontsulatu bat?

—Estatu baten antolakuntzari arreta jarriz gero, atzerri-ministerioa daukagu nagusizat. Kontsulatu esan daiteke atzerri-ministerioaren barnean dagoen azkeneko ordezkari dela, autonomia erkidego mailakoa. Bi eratako kontsulak daude: ministerioagaz zuzeneko erlazioa daukan bertako karrerako kontsula eta ohorezko kontsula, ez duena zertan txiletarra izan. Gure lana tramitazioak egitean datza, bai hemen dagoen koloniarri zein Txilera joan gura duen euskaldunari.

—Zelakoak dira Txile eta Euskal Herriaren arteko harremanak?

—Oso onak eta zuzenak direla esango nuke, arlo asko betetzen dituzte gainera: osasunarena, instituzionala, zientzia eta teknologia... Orokorrean erlazioa oso arina da. Santiagon Euskal Autonomia Erkidegoaren delegazioa dago eta horrek Txileko gobernuagaz erlazio zuzena edukitzea ahalbidetzen du.

—Zertara datoz txiletarrak?



Perez de Unzueta jauna Leioako bere bulegoan

—Batzuk oporretan datoz eta gero badoaz. Beste batzuk, ordea, lan egitera datoz, nahiz eta azken boladan joera hori asko gutxitu den, momentu honetan Txilen lanpostu asko sortzen ari delako, eta horrenbestez, ez dute hona etortzeko beharrik. Lan egitera datorrena hemen kokatzen bada, askotan bere familia ere ekartzen du. Baina esan bezala, kolonia hau nahiko finkaturik dago. —Zelakoa da Txileko egoera gaur egun? —Ikuspuntu makroekonomikotik ona da.

Barne-produktu gordinak %5eko hazkuntza dauka eta horrek egoera oso egonkorra ematen du. Urtero 200.000 bat lanpostu sortzen dira eta esportazioak inportazioak baino handiagoak dira.

—Zelan sentitzen dira Euskal Herrian?

—Oso ondo. Integraturik daude, euren elkarrekin kulturalak dituzte, musika folklorikoa jorratzeko taldeak... Txilek munduari begira betidanik izan du ikuspegi kultural garrantzitsua. ○

Zure iritziaren bila

Leioako **Euskara Zerbitzuak** euskararen Plan Estrategiko berria egiteko herritarren iritzia gura du



Iritzia ematen duten herritarren artean afaria zozketatuko dute

EBPNren 2004-2007ko Plan Estrategikoa amaitua da eta Euskara Zerbitzua berria egiteko zorian dago. Leioako herritarren iritzi eta ideiak jaso nahi ditu Euskara Zerbitzuak, eta horretarako, kanpaina barri bat abiaraziko dute: *“Leioa euskaraz: zure iritziaren bila”*. Ekarpenera paperak banatuko ditu herritarren artean eta ekarpen-paper horiek jasotzeko kutxa batzuk ipini ditu udal zerbitzu ezberdinetan eta herriko hainbat taberna eta dendatan. Ekarpenera emateko azken eguna abenduaren 13a izango da.

Parte hartzen duten guztien artean Soletxe jatetxean afari bat zozkatuko da. Nahi beste ekarpen eta paper sar daitezke, baina partaideek aukera bana izango dute zozketan. Zozketa abenduaren 18an, eguerdiko 12:00-

etan Erabiltokian izango da. Joxe Belmonte Euskara Zerbitzuko zuzendariak aitortu duenez *“kirol arloa da gehien garatu eta hobetu behar duguna. Oro har, hurrengo Plan Estrategikoari begira, herriko elkarteekin hurbilgotik lan egin nahiko genuke”*.

Bestalde, Joxe Belmontek emandako datuen arabera, Leioako populazioaren ia laurden bat euskalduna da eta beste batzuk bidean daude. *“Egia da, ordea, jakiteak ez duela erabilerari ziurtatzen, batzuetan euskalduna euskaldun moduan ezagutzen ez dugulako, leioaztarna da, auzokidea, baina euskalduna den ez dakit. Hor Euskara Zerbitzuitik bi estrategia markatzen ditugu: lehen hitza euskaraz eta euskaldunek elkar ezagutzeko ekimenak martxan jarri.”* ○

1875 ETA 1960 BITARTEKO JOSTAILUAK IKUSGAI

Jostailua haurtzaroren oroitzapena izateaz gain, sortua izan zeneko garaiko kultura, soziologia, artea eta prozesu industrialen erakusgarria da. Erakusketa honek munduko jostailugintzaren berri ematen du, ekoizpenaren hasiera industrialetatik 60ko hamarkadara bitarteko ibilbidea eskainiz. Panpinak, animaliak, hegazkinak, trenak, autoak, motorrak, itsasontziak eta jolasak izango dira beste batzuen artean. Guztira, 300 jostailu baino gehiago. Erakusketa abenduaren 3tik urtarrilaren 27ra arte egingo da, erakusketa aretoan.

ARIEL ROT AZAROAREN 23AN

Tequila taldearekin ezaguna egin zen Ariel Rot, baita ospe handia lortu ere. Ondoren, *Los Rodriguez* taldearekin, zentzua, nortasuna eta konpromiso artistikoa erakutsi zituen. Bakarkako ibilbideari ere ekin zion musikariak, rock garaikideko diskoak grabatuz, oso konposizio, interpretazio eta soinu maila handikoak gainera. XVIII. Musika Denboraldiari jarraiki azaroaren 23an Auditoriumean joko du 18 euroren truke. Musikaren munduan hogeita hamar urte egin izanak badu zer esana.

XXVIII. ARTISAUTZA ETA GASTRONOMIA AZOKA

Artisautza tradizionalarekin batera, berezitasun gastronomiko onenak ere izango dira azaroaren 10ean eta 11an. Hogeita hamar bat erakusteta-postuk produktu eskaintza zabala egingo diete herritarrei Errekalde enparantzan.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

[erandio]

Felix Blanco > Keli elkarteko kidea

“Auzo langile honetan ekintza kulturalak dohainik eskaintzeko sortu zen Keli Elkartea”

Lutxanako Eskolek askotan ahaztutako auzo honi bizia ematen diotela diote askok. Eta halan da. Keli Elkartea bertan aritzen den elkarteetako bat da. Felix Blanco, elkarteko kideak azaldu duenez, kultura bultzatzeko xedearekin jaio zen Keli duela hamar bat urte. Hori dela eta, eskaintza kultural ugaria aurki daiteke Lutxanako Eskoletan. Felixek argi utzi digu auzo honetako jendearentzat egiten dutela lan eta sekulan ez dutela kobratuko.

—Zer nolako ekintzak antolatu dituzue hurrengo hilabeteetarako?

—Kontzertuak, dantzaldiak... Oraintxe bertan *Azaroko Jardunaldi Kulturalak* egingo ditugu. Hau datozen egunetako ekimen gogorra da eta 5ean hasiko da. Asteazken zehar zenbait ikastaro daude: ametsen ikastaroa (ametsen esanahia interpretatzeko ikastaroa), musika ikastaroa (erritmoak lantzeko) eta dantza egongo dira, beste batzuen artean. Aipatu behar da antolatzen ditugun ikastaro guztiak intentsiboak direla. Hitzaldi interesgarriak ere izango dira geure artean: haurdunaldia ondo eramateko gomendioak, modu naturalean erditzeko metodoei buruzko hitzaldia...

—Zer da jende gehien erakartzen duen



Elkarteko kideak Lutxanako eskolen aurrean

ekintza?

—Yoga eta Tai Chi ikastaroak dira duda barik jende gehien erakarri dutenak. Horrenbesteko arrakasta dutela ikusirik, aurretik ere ikastaro horrekaz jarraitzea erabaki dugu. Beste batzuetan berriz, egun batetik bestera antolatutako ekintzetara jende asko etortzen da hona.

—Nortzuk zabilzate Keli elkartean?

—Momentu honetan gitxi gaude, Jose nire anaia eta bion artean daramagu gehien bat, nahiz eta gaztetxoak ere egon. Baina ekin-

tzak antolatzeko momentuan Tirante Plataformagaz gabiltza orain dela pare bat urtetik hona.

—Nola sortu zen elkartea?

—Buff!, Istorio luzea hori... Orain dela hamar urte eskoletan talde bat bakarrik zebilen eta bertan sartu ginen gu. Baina denbora pasa ahala, beste elkarte bat sortzea erabaki genuen eta gela bat geureganatu genuen baimena eskatuta. Guztira zazpi ginen eta beste izen bat zeukan elkarteak. Ordutik hona jende pilo bat pasatu da hemendik. ○

Herriko izenak ezagutu

Erandioko toponimiaren inguruko jardunaldiak izango dira hilabete osoan zehar



Martiartu ingurua

Ollaga kaleari Oleaga izeneko baserritik dator kiola al dakizu? Edota Kukularra ez dela muinoaren izena, Galarraga baizik? Hau guztia jakitera emateko Erandioko toponimiaren inguruko hitzaldi eta erakusketak izango dira.

Jardunaldiek hiru aste iraungo dute eta azaroaren 6an izango dute hasiera Astrabuduko Josu Muruetan. Bigarren astean, ordea, Alzagako Erakusketan Gelan ospatuko dira jardunaldiak, eta azkenik, hirugarren astean, Erandio Goikoan dagoen udaletxe ohian. Hitzaldiak Iratxe Lasa Erandioko toponimian aditua eta Euskaltzaindiako onomastika batzordeko kideak emango ditu.

“Jardunaldiak antolatu dira atera ditugun emaitzak jende aurrean jartzeko eta herritarrek

emaitza horiei ekarpenak egiteko”, azaldu du Iratxek. Erandioko toponimian adituak esan duenez, hitzaldietan bildutako toponimiak zeintzuk diren eta ahozko erabileratik idatzizkora zer nolako aldaketak egon diren jorratuko da. “Galdu eta berreskuratu diren toponimien inguruan hitz egingo dugu”.

Erakusketari dagokionez, auzoka banatutako mapa batzuk egongo dira taula bakoitzean: auzoka bildu eta kokatutako toponimiak egongo dira bertan ikusgai. *“Horretaz aparte, auzo bakoitzari dagokion toponimoak ikusteko aukera edukiko dugu beste zazpi karpitetan”, gaineratu du Iratxek. “Helburu nagusia Erandioko euskara aztertzeke izena edota kokapenari buruzko ekarpenak jasotzea da”.* ○

SKATE EGITEKO PISTA ERAIKIKO DUTE KIROLDEGIAREN ALBOAN

Udalak irristailuagaz ibiltzeko parkea eraiki gura du kiroldegi ondoan dagoen zelaigunean. Patineteagaz ez ezik, bizikletagaz ere ibiltzeko aukera emango du pista berriak. Momentu honetan, hiru pista eredu ezberdin aztertzen ari da udala: tamaina handieneko eredu 2.000 metrokoa da, baina Leioan eraiki berri duten pistaren antzekoa egitearen alde agertu dira udaleko agintariak. Modu honetan, azken urteotan kirola egiteko eta gazteek elkartzeko gune berriak sortzeko eskakizunei aurre egin nahi die udalak. Parke berri hau eraikitzeko Jado ikastexearen aurrean eta futbol zelaiaren ondoan dauden eraikin industrial zaharrak eraitsiko dituzte. Inguru honetan aipatutako obrez aparte, Tartangako hobekuntza obrak ere egingo dituzte.

DATORREN URTERAKO ZERGAK ETA TASAK %2,8 IGO DITUZTE

Erandioko udalak zergak eta tasak %2,8 igotzea erabaki du datorren urteari begira. Ondorioz, kotxeen gaineko zergak, ogasun higiezinaren edota Ekonomia Jardueren zergak bezalakoetan eragingo du erabaki honek. Kotxeen gaineko zergei dagokionez, 25 urte baino gehiagoko autoek %100 antzinasun-saria edukiko dute, baita historikotzat hartzen diren autoak ere. Tasei begira, berriz, KPlaren (Kontsumorako Prezioen Indizea) igoerak garabi, zarama eta estolderia bezalako zerbitzuak hartzen dituzte bere gain.

TXIRRINDULARIEN ESKUBIDEEN ALDEKO VIII. MARTXA ZIKLOTURISTA

Azaroaren 11n txirrindularien eskubideen aldeko martxa egingo da zortzigarren aldiz. Hau 13:00ean udaletxetik abiatuko da eta ordu erdiko iraupena izango du.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitatarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



www.arlan.biz

EHSF BODYBOARD ZIRKUITO PROBA HILEKO BIGARREN ASTEBURUAN

Euskal Herriko Surf Federazioak datorren azaroaren 10 eta 11 bitartean egingo du bodyboard proba Atxabiribilen. Aipatutako proba irailean egitekoa zen, baina EHSFk proba atzeratzea erabaki zuen momentu berean Europako txapelketa garrantzitsu bat egiten baitzen. Era honetan, txapelketa bietan parte hartzeko aukera izan dute lehiakideak.

ONCE ERAKUNDEAREN TXARTELETAN AGERTUKO DA SOPELA

Areetako itsas pasealekuarekin egin zuen bezala, ONCE Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak Sopelako irudia erabiliko du bere zozketa txarteletan. Sopelako irudia ez ezik, Erandiokoa ere erabiliko du. Datorren azaroaren 22an eta 27an ONCEren bost milioi kupoik eramango dituzte Erandioko Andra Mari elizaren eta Sopelako surfarien irudiak, hurrenez hurren. Bi txartel horiek ONCEk martxan jarri duen Euskal Herriko 14 herriren irudi-bildumaren parte dira. Gainontzeko herriak ondokoak dira: Audio, Azpeitia, Beasain, Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Zarautz, Zumarraga, Azkoitia, Arrigorriaga, Bermeo eta Trapagaran. Kupoi bakoitzeko 50 serie aterako dituzte; guztira bost milioi txartel.

AMATEUR BIZIKLETAK SALTZEN DITU UGERAGA KIROL ELKARTEAK

Ugeraga Kirol Elkartek 2007ko amateur taldearen bizikletak salmentan jarri ditu. Karbonoko Onix Tour bizikletak dira eta 51, 54 eta 57 neurrietan eskura daitezke. Saltzen diren bizikleta hauek bederatzi hilabete baino ez dituzte.

Informazio gehiago: 610 522 268

Euskal soinuak Alboka, pandero eta txalaparta ikastaroak emango ditu Aitxu! euskara taldeak



Ikastaro hauetan parte hartzen dutenek euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen dute

Sopelako Aitxu! euskara taldeak hiru euskal musika-tresnei buruzko ikastaroak abian ipini ditu: alboka, panderoa eta txalaparta. Helburua gure kulturaren hainbat esparru lantzea eta kaleratzea da.

Taldeak azaldutakoaren arabera, ikastaroen bidez Sopelan euskaraz komunikatzeko gune berriak sortuko dira, ikastaro hauetan parte hartzen dutenek euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen baitute.

Alboka ikastaroa astelehenero izango da; hilean 20 euroren truke, 20:30etatik 21:30etara. Txalaparta eta pandero ikasta-

roak berriz, barikuetan izango dira, 17:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:00etara, hurrenez hurren. Gazteek eta langabetuek 25 euro ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 35 euro hileroko.

Ikastaro batzuk urriaren 29an hasi ziren jada, eta besteak azaroaren 5ean hasiko dira. Hala ere, ez dago inolako arazorik edozein momentutan ikastaroetan izena emateko. Pandero eta txalapartarako izena emateko 656 798 622 telefono zenbakira deitu (Karlos) eta albokarako 626 642 909-ra (Aitor). ○

Fernando Julian > D'arco klubeko entrenatzailea

“Askok etsi egiten dute, ez dute-eta monitore baten laguntza egokia eduki”



Euskadiko Arku-tiro Federazioaren presidentea ere bada Fernando Julian

Urriari minusbaliatu fisikoen munduko arku-tiro txapelketa ospatu zen Korean eta Fernando Julian bertan egon zen, Espainiako minusbaliatuen selekzioako koordinatzaile baita. Baina horretaz aparte, Euskadiko Federazioaren presidente eta D'arco klubeko entrenatzailea ere bada. Fernandok ziurtatu digunez, Euskal Herrian 700 bat jarraitzaile ditu kirol honek: “Sopelako kluba garrantzitsuenetakoa da, Gallartako klubagaz batena; gaur egun 50 kide gaude D'arco klubean”.

Entrenatzailearen esanetan, kirol honetan jarduten hasteko monitore batengana jo beharra dago eta gogoz hartu behar da, noski. “Armairuak dendetan erositako arkuak beteta daude askok etsi egiten baitute, ez dutelako monitore baten laguntza izan”. Arku-tiroaren gakoa irakaskuntza ona jasotzea dela gaineratu du, “ez da gaitasun berezirik eduki behar”. Horretarako minusbaliatuen adibidea jarri digu: “persona hauek oso ondo egiten dute tiro, behar duten bakarra mate-

rial egokia edukitzea da”.

“Edozein kiroletan bezala, segurtasun neurriak hartuz gero, arku-tiroa ez da arriskutsua” azpimarratu du Fernandok. Instalazioen garrantziaz ere mintzatu da Sopelako klubeko kidea: “Neguan zehar Getxoko kiroldegiko probalekuan entrenatzen dugu, eta udan berriz, Ander Deunako arku-tiro zelaian”.

«Arku-tiroaren gakoa irakaskuntza ona jasotzean datza»

Europako minusbaliatu fisikoen txapelketan lortutakoaren harira, urrezko domina bi lortu dituztela jakinarazi du entrenatzaileak, bi modalitateetan munduko marka gaindituz. Era berean, Ane Miren Alberdi D'arco klubeko taldekide minusbaliatuak orandik ere zeresan handia emango duela aipatu du: “Europako txapelketan da bere modalitatean eta ospatu berri den munduko txapelketan 12. postuan geratu da”. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK
Taberna**

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

ANANTAPURREN GAINEKO ERAKUSKETA AZAROAN

Indiako Anantapur herriko emakumeekin lan egiteko hitzarmena martxan dauka Berangoko Udalak. Hau dela eta, bertako Dalits komunitatearen (ukiezinak) egoeraren berri emango duen argazki erakusketa ikusgai egongo da azaroaren 5etik 18ra. Honi hasiera emateko, inaugurazio ekitaldia antolatu dute azaroaren 6rako. Honetara, Irune Pascual, Vicente Ferrer elkarteak ordezkarria hurbilduko da, Indiako eskualde honetan bizi duten egoera azaltzeko eta Anantapurrekin konprometitua dokumentala proiektatzeko. Erakusketa Berangoetako kultur etxean egongo da ikusgai, goizeko 10etatik 14etara eta arratsaldeko 6:30etatik 9etara.

DANTZA EMANALDIA ETA PINTXO DASTAKETA

Azaroaren 10ean, Krakovian saritua izan zen dantza errepertoria eskainiko du Simon Otxandategi Dantza taldeak pilotalekuan. Arratsaldeko 7etatik aurrera izango da hau eta bertan Poloniako hirian berangozarrek irabazitako trofeoa ikusteko aukera egongo da. Dantza emanaldiaren ostean, afaria antolatu dute dantza taldeko lagunekin batera bidaiatu zuten guztientzat. Hurrengo egunean, azaroaren 11n, XVI. Pintxo Dastaketarekin gozatzeko aukera egongo da Gorozti Naturzale taldearen eskutik. Hau 12etatik aurrera izango da pilotalekuko kanpoaldean.

GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

Azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izango da. Hau dela eta, ekintza ugari antolatu dituzte Berangoko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak. 24 eta 26an antzerkia izango da Berangoetan; 27an aldiz, Mozarten musikaz gozatu ahal izango da.

Sei Herri ibilaldi neurtua

Probaren 25. urteurrena ospatuko dute aurten



Herriko mendi eta txokoak ezagutzera emateko helburuarekin hasi ziren ibilaldia antolatzen

25 urte joan dira Berangoko gazte talde batek lehenengo ibilaldi neurtua antolatu zuenetik. Herriko mendi eta txokoak ezagutarazteko helburuarekin hasi ziren Sei Herriko lagunak ekimen honekin, eta bideetik oztopo asko aurkitu dituzten arren, aurrera egin dute 25 urte bete arte. Urteurrena ospatzeko sortu duten blogean irakur dezakegunez: *"Ibilaldia gaztetasunetik sortu zen eta gazteen eskutik, gazteen eskura dihardu beti, gurea bai eta etorkizuna!"*.

Aurten, azaroaren 18an izango da hitzordua, goizeko 8:30ean. Etxeko txikienak apur bat beranduago hasiko dira, 9ak aldera.

Ibilbidea osatutakoan eta gurasoek triki poteoan gozaten duten bitartean, umeentzako jolasak egongo dira 13:30etik aurrera. Ondoren bazkaria egongo da, txikiek menu berezia izango dutelarik. Bazkaria musutruk izango da parte hartzaile guztientzat eta gaitzakoek, herri-prezioan izango dute jateko aukera. Arratsaldeko 15:30ean haurrentzako zinea eta 18:00etan sari banaketa egingo dute. Eguna jai giroan amaitzeko, erromeria izango da 19:30etik aurrera. Antolatzaileek aurreratu dutenez, urteurrena dela eta, ohi baino ekintza gehiago antolatu dituzte aurten. Beraz, adi egon! ○

Itziar Elorriaga > Mankomunitateko euskara teknikaria

"Gure helburua umeei eskolatik kanpo euskaraz jolasteko aukera ematea da"



Argazkian, Itziar Elorriaga

Euskaraz Olgetan egitasmoak hiru urte bete ditu aurten. Urrian, honi amaiera emateko jaiak ospatu zituzten Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten hainbat herritan. Horri buruz berba egin digu Itziar Elorriagak.

—Zeintzuk dira *Euskaraz Olgetan* egitasmoaren helburuak?

—Umeak eskolatik kanpo ez dute euskara asko erabiltzen. Gure helburua umei eskolatik kanpo euskaraz olgetan ibiltzeko aukera ematea da, gutxienez astean behin.

—Zer nolako ekintzak antolatzen dituzte? —Denarik egon da. Bi hilabeteka egiten denez, maiatza-ekainean eta iraila-urrian, harrera festa bat eta amaiera festa bat egiten da beti. Gero, aste bakoitzean gai bat aukeratzen dugu eta horrekin lotutako lantegi eta jolasak egiten ditugu. Musika astea, ongizate astea, malabare tailerra, irakurketa tailerra... gauza ezberdinak daude.

—Ze adinetako umeek hartzen dute parte?

—Batez ere haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako lehenengo urteetako umeak egoten dira, 1-10 urte bitartekoak gutxi gora behera. Hurbiltzen den ume kopurua eguraldiaren arabera ere aldatzen da.

«Gero eta jende gehiago batzen da egitasmoa eta oso pozik daude»

—Egitasmoa burutzen duzuen hirugarren urtea da. Zelan baloratuko zenuke?

—Jendearen erantzuna orokorrean oso ona izan da hiru urte hauetan. Proba moduan hasi zen eta ondo irten zenez jarraipena eman zitzaion. Geroz eta jende gehiago batzen da eta jendea oso pozik dago.

—Eta etorkizunari begira zer?

—Aurrera jarraitzeko asmoa daukagu. Gero eta ume euskaldun gehiago daude eskualdean eta horrelako ekimen bat behar-beharrezkoa da. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Andrés Cortina 2
ALGORTA



Sarrikobasa 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



kopak eta giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



GORLIZKO LEHENENGO ERREZITALDI POETIKOAK

Gorlizko Udal Liburutegiak Lehenengo Errezitaldi Poetiko-Musikalak antolatu ditu azarorako. Ostiraletan izango dira erakustaretoan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Sarrera doakoa da eta saioak bukatu ostean lunch bat emango dute. Iñaki Urrutiak, Juan Ramon Mankusok, Txileko Pablo Neruda Kultur Zentroak eta Irakurri eta Idatzi elkarteak parte hartuko dute, beste askoren artean.
Informazio gehiago: 94 677 40 00

MEDIKU BERRIA IZANGO DUTE BARRIKAN

Plentziako Osasun Zentroan mediku berri batek bere jarduera hasi zuen urriaren 1ean arratsaldeko ordutegian. Honen helburua, Barrikako bizilagunei ordutegi aldetik malgutasun handiagoa eta alde fisikotik erraztasun gehiago ematea da. Mediku berriari esleituko dizkioten pertsonak jakin ostean, udalerriak bi ordutegi ezberdin izango ditu. Honez gain, astean hirutan kontsultak izango dira Plentzian eta Barrikan. PSE-EEK sendagilea herrian bertan izatea eskatu du.

HONDARTZAKO LANAK HASI DIRA GORLIZEN

Urriaren 17an hasi ziren Gorlizko hondartzako lanak eta abendura arte luzatuko dira gutxienez. Aparkalekua kendu eta hondartzak handituko du Gorlizko Udalak. Horretarako, tabernak botatzen hasi dira, gazteon topalekua izan den Haizea taberna, adibidez.

PLENTZIA

Surferoak eta txirlerok dragatzearen kontra



Dragaontzia Gorlizen

Kaiaren egoera kaxkarra dela eta, dragatze-lanekin hasteko beharra ikusi dute erakunde publikoek. Itsasontziei porturako sarbidea eta irtenbidea errazteko egin gura dute hau. Baina Plentziako surferoek eta txirlerok ez dute erabakia begi onez hartu. Izan ere, Mundakan gertatutakoaren antzeko zerbait gerta daitekeen beldur dira.

Plentziakoa Kantauri itsasoko surflari gazte-entzako olatu preziatua da gaur egun. Eneko Acero eta Garazi Sanchez eliteko olatuzaleek

hemen eman zituzten lehenengo pausoak. Troka, Alder, Cabo Billano eta beste eskola askotako ikasleak ibiltzen dira Plentziako uretan. Dragatzeak olatua bi-hiru urteetarako desagertzea ekar dezake. Honez gain, txirlak biltzeko itsasadar emankorrenetako bat da Plentziakoa. Lanak burutuz gero, milaka muxil galduko dira. Kolektibo biek kaiaren egoera tamalgarrria dela onartzen duten arren, ez dute dragatzea beharrezkoa ikusten, itsasontziak honetara sartu eta irten baitaitezke. ○

Aza. 10-25

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

URDULIZ

► **Hiri debekatuaren mapa.**
Kultur etxe zaharra. Azaroak 9 eta 10.

GETXO

► **Olio eta akriliko erakusketa.**
Ana Isabel Miguel Diaz. Algortako kultur etxea. Azaroaren 17ra arte.
► **VI. Komiki eta Manga Azoka.**
Erromo eta Areeta.
Azaroaren 23tik 25era arte.

LEIOA

► **Bosteko X. edizioa.** Bonifacio Alonso, Juan Luis Goenaga, Fernando Biderbost. Erakusketa gela. Azaroaren 27ra arte.

ZINEMA

LEMOIZ

► **Zine forum.**
Kultur etxea. Azaroak 18. 20:00.

URDULIZ

► **Movida bajo el mar.**
Kultur etxea. Azaroak 17, zapatua. 18:00. Sarrera: 2 euro.

GETXO

► **Harry Potter y la orden del Fénix.**
Getxo Antzokia. Azaroak 11. 12:00, 17:00 eta 19:30. Sarrera: 2,10 euro.

► El velo pintado.


Getxo Antzokia. Azaroak 14, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,10 euro.

► El violín.

Getxo Antzokia. Azaroak 16, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

LEIOA

► **El ultimátum de Bourne.**
Kultur Leioa. Azaroak 10,11 eta 12. 20:00. Sarrera: 3/4 euro.
► **Caótica Ana.**
Kultur Leioa. Azaroak 17,18 eta 19. 20:00. Sarrera: 3/4 euro.



► Kultura

Lutxanako V. Azaro Kulturala

Tirante Plataformak eta Keli taldeak aurten ere ekintza kulturalak beteriko azarora antolatu dute. Azaroaren 5etik 30era eskaintza zabala daukagu Lutxanako eskoletan: lehenengo astean gorputzak ematen dituen irudiak aztertzekeo tailerra eskaintzen du June Crespok. Bigarren astean, berriz, Felix Blanco eta Andoni Iturbidek ametsak interpretatzeko tailerragaz datozkigu. Azaroaren 19tik 22ra Amaia Pascualen ekimenez gorputzeko mugimendu eta ahotsak estalgabatzeko aukera izango dugu joko dibertigarri batzuen bidez. Eta Azaro Kulturalari amaiera emateko, musika tailerra egongo da azkenengo astean. Tailer guztiak doakoak dira. Horrez gain, bertsoaioak, proiektzioak, kontzertuak, antzerkia... beraz, erne ibili!

• Non: Lutxanako eskola zaharrak • Noiz: azaroaren 5etik 30era

MUSIKA

GETXO

► **Koskajaia: Rafael Amor eta Eneko Burzako.** Itzurbaltzeta gaztetxea. Azaroak 10, zapatua. Sarrera: 3 euro.

ERANDIO

► **DJ Lloque.** Lutxanako eskolak. Azaroak 16, barikua. 23:00.
► **Jazz Ciudad.** Lutxanako eskolak. Azaroak 17, zapatua. 24:00.
► **When I was Manolo.** Lutxanako

eskolak. Azaroak 23, barikua. 23:30.

LEIOA

► **Mikel Erentxun & Shuarma.** Auditorium. Azaroak 15. 20:30. Sarrera: 15 euro.
► **Ariel Rot.** Auditorium. Azaroak 23. 20:30. Sarrera: 18 euro.

BARRIKA

► **Musika klasikoa.** Eliza. Azaroak 24, zapatua. 12:00.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **4 maneras de Jenny Monzón para ser Jenny Monzón.** Katastrofen! taldea. Lutxanako eskolak. Azaroak 11, barikua. 20:00.
► **Honolulu, leku bat.** Gilkitxaro. Lutxanako eskolak. Azaroak 18, domeka. 19:30.

URDULIZ

► **Rosi erosi.** Kontsumo arduratsuari buruzko antzerkia. Kultur etxea. Azaroak 22. 10:00 eta 11:30.

BARRIKA

► **Haur antzerkia.** Txis-txas. Liburutegi zaharra. Azaroak 17, zapatua. 13:30.

BESTEAK

ERANDIO

► **Hitzaldia: Erandioko toponimia.** Iratxe Lasa. Erakusketa Gela. Azaroak 13, martitzena. 20:00.
► **Hitzaldia: Procesos naturales de aprendizaje.** Vega Martin. Lutxanako eskolak. Azaroak 16, barikua. 19:30.
► **Bertsobaladak.** Lutxanako eskolak. Azaroak 16, barikua. 20:00.
► **Hitzaldia: Erandioko toponimia.** Iratxe Lasa. Udaletxe ohia. Azaroak 21, eguaztena. 20:00.

► **Auzoko bazkaria.** Lutxanako eskolak. Azaroak 25, domeka. 14:30.
► **Match que poteo + Haga usted lo que pueda.** Lutxanako eskolak. Azaroak 30, barikua. 22:00.

SOPELA

► **Bodyboard txapelketa.** Atxabiribil hondartzak. Azaroak 10 eta 11.

LEMOIZ

► **Ipuin kontalariak.** Urizar. Azaroak 15, eguena. 18:00.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Txistulariari gorazarre

Mende erdiz baino gehiago txistua jotzen eta musika tresna honi merezi duen maila emoten ibili da Julen Billelabeitia. Itxas-Argia, Itsasgane, Uribe Aldeko Txistularien Batza edota Andra Mari elizako abesbatza. Horietan guztietan eta beste batzuetan egon da Julen; beti txistuaren alde, beti txistulari. Hilaren 27an Txistularien Elkarteak eta bera ibili den taldeek merezitako gorazarre hunkigarria egin zioten Getxon. Eskerrik asko Julen!

Argazkiak: **Jose Mari Martinez "Bubu"**





Erandio
Asier Mentxaka

[berbetan]

Bere bizitza erakargarriari buruzko filma aurkeztu zen Donostiako Zinemaldian. Anarkismoaren alde egin zituen lapurreta eta faltsifikazio ikusgarriengatik ospetsua da Lucio Urtubia (Cascante, 1931). Bere kolperik sonatuena First National City Bank-aren 2.000 milioi pezetako txekkeen faltsifikazioa. Bere arrazoiak ezagutu nahi izan ditugu eta Pariseko bere etxera telefonoz deitu diogu.

Lucio Urtubia

Behargin anarkista

Testua: **Jokin Aspuru** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zure jardura politikoagatik, urte askoan klandestinitatean ibili zara zu, isilean. Orain pelikularekin pertsonaia publiko bihurtu zara.

—Badadakat adin bat, urteetan sartuta nago, horrek gauzak errazten ditu. Eta gainera ez daukat ezer ezkutatzeko. Egin ditudanak eta gero, txarrena da ez nautela atxilotzen, hori egingo balute behintzat. Oso publizitate ona izango litzateke. Esan dizudan moduan, zahartxo naiz eta bizitzan egin ditudan gauza batzuk garai batean gaizki ikusiak ziren. Baina gaur egun berriro hasi beharko banu, berdin jokatu nuke, berdinak egingo nituzke. Ez daukat ezer ezkutatzeko ezta inoren aurrean ezkutatu beharrik.

—Ze iritzi daukazu zuri buruz egin duten

filmeari buruz.

—Oso ona, baina oso laburra iruditzen zait. Laurogei ordutik gora grabatu zizkidaten eta ordu eta erdi baino ez du irauten pelikulak. Material horrekin beste gauza batzuk egitea gustatuko litzaidake.

—Egiten dizkizuten elkarrizketa guztie-

kin ondo moldatzen nintzen, jatorri nafarrekoa zen bera. Eta berak antolatutako elkarrizketa. Hotza izan zen elkarrizketa, bera desengainatua sentitu nuen.

—Zure bizitza akzioa hutsa izan ei da, zure kolperik sonatuena, National First Bank-eko txekkeen faltsifikazioa izan zen.


“Benetan bizitzeko behar-beharrezkoa da ideal bat edukitzea”

tan, Ernesto *Che* Gevararekin izan zenuen batzarra aipatzen da.

—Batu ginen, bai. Garai hartan nik ez neukan inongo eragozpenik Kubako erre-gimerakin, izan ere, Kubaren aldekoa nintzen erabat. Rosa Simone enbajadoreare-

Zelan gogoratzen duzu hura?

—Egin beharreko gauzak ziren. Hala ere ekintza horri, bere ikusgarritasunagatik-edo, publizitate handia eman zaio. Horrelakoak zarete kazetariak! Baina nire bizitza langile baten bizitza izan da. Beti erai-



kuntzan egin dut lan, igeltsero. Naizena naiz eta bizi naizen moduan bizi naiz, eta hori egin dudana lan horregatik da. Nire bizitzan zeozer nabarmendu behar bada 73 urte bete arte lanean egon naizela da. Eta lanaren apologia egiten dut beti, izan ere lan barik ez gara ezer. Badago jendea nire lanaren aldeko apologia honekin harritzen dena. Nik daukadan esperientziagatik diot hau, baina errazkeriak ez du pertsona inora eramaten. Gauza guztiek badaukate bere prezioa. Edonora heltzeko lan egin behar da eta sari hori ordaindu, bestela pertsona ez da ezer. Horregatik defenditzen dut lana, arlo guztietan.

—Zure jarduera politikoa finantziatzeko egiten zenituzten lapurketak, *espropiazioak* deitzen dituzu zuk.

—Dirua lortzeko, eta behar genuen, dirua zegoen tokietara joan behar zen. Guk, anarkistoak ez geneukan ezer. Gure artean diputaturik eduki izan bagenu edota industrialik edo bankaririk, ba eurak emango ziguten dirutxo bat. Baina guk, anarkistok ez geneukan inor, eta diruaren bila joan behar genuen. Dirua ez zen oporretara joateko. Eskuorriak inprimatzeko, edota preso ei bost erreal bidaltzeko edota abokatu bati ordaintzeko erabiltzen zen. Gauzak lortzeko *espropiazioak* egitea besterik ez genuen. Idealista zarenean, idealista zara eta ez dago zer eginik. Gaur egun, adibidez, zurekin berba egiten badut, nire ideala edukitzen jarraitzen dudalako da. Eta segitzen dut pentsatzen nire bizitzan egin dudana arrazoizkoa dela. Egiten dituzunak oporretara joateko balio badu, ba gaizkilea zara. Lapurketa ekintza iraultzailea da, beti ere espropiatzen duzuna zuretzat ez bada. Egiazko lapurreta udaletxeetako edota ministerioetako jendilaje horrek egiten duena da; lurren espekulazioa etab. Horiek dira benetako gaizkileak.

—Euskal azeria, *bandibo zintzoa*... horrela definitu izan zaituzte. Ze iritzi duzu?

—Nik ez diot inongo garrantzirik ematen. Baina Euskal Herria aipatu duzunez esan nahi dizut, azken boladan sarritan egon

naizela han. Eta gaztetasun oso borrokalaria ikusi dut. Bada esperantzarik, euskal gazteria ez dago hilik. Oso pozik itzuli naiz. Gaur egungo gure gizartean goseak ez du inor hilko, ez da ni txikia nintzeneko garaietan bezala gertatzen. Hala ere, benetan bizitzeko behar-beharrezkoa da ideal bat edukitzea. Jateko baino ez bada bat bizi, hori ez da bizitza. Ideala eduki behar da,

“Nire bizitzan zeozer nabarmendu behar bada 73 urte bete arte beti lanean egon naizela da”

sarritan idealak ordain latza dakarren arren. —Cascanten jaioa, Parisen bizi zara orain dela urte asko. Zelan heldu zinen hara?

—Gosea berriro ere. Gerra ostean ni Luzaiden bizi nintzen, mugan. Han ez zegoen biziterik, goseak hiltzen geunden, batez ere gu, txirook. Kokoteraino geunden; gosea, injustizia, zikintasun politikoa hura. Nik alde egitea baino ez nuen nahi, mugatik hurbil bizi nintzenez Frantzira jo nuen. Jan nahi nuen, eta nire ama lagundu.

—Zelan heldu zinen anarkismora?

—Konbentzitu ninduen Kiko Savater izan zen. Bere etika, bere portaeragatik, bere jokatzeko modu zuzenagatik. Berak irakatsi zidan anarkistek egiten zutena. Zoroak zirela? Akaso bai. Baina gauzak bere errotik aldatzen saiatzen ziren. Hori egiten anarkistak baino ez dira ahalegindu.

“Bizitzeko hiru modu baino ez daude: lapurtu, eskean ibili edota lan egin. Horietako bat aukeratu behar da”

Bestetik deformazioa handia dago eta jendea tranpa horretan jausi da. Anarkia batez ere, erantzunkizuna da eta ez dauka terrorismo edota esaten diren gauza horiekin inolako zerikusirik. Egiazko anarkista arduratsua eta langilea da. Maitzak 1; Txikagone greban altxatu zirenak anarkistak ziren. Historia anarkistek egin dutela esan daite-

ke. Ez dira sozialistak izan, erosokerian bizi izan dira beti. Eta komunistak ezta ere, gauzak beti txarto egin izan dituzte.

—Baina, zer da anarkista izatea?

—Labur esanda, edozein gobernuren kontra ahalegintzea. Edozein gobernuren poterearen jabe egiten denean bat, badakigu zer gertatzen den zaion. Ustelkeriaren besoetan erori baino nahigo dut anarkista izatea.

Gauzak aldatzeko borroka egin behar da. Baina hala ere, ez dago irtenbiderik, ez daukagu konponbiderik; ez agintariek, ez anarkistok. Irtenbiderik balego nik uste dut honezkero aurkituta egon beharko lukeela. Ni guztiz sinetsita nago; gizonaren betebeharra borrokatzea da, ez borrokatzea koldarkeria da. Gizonak borrokatu behar du.

—Zelan azalduko zenioke gazte bati borrokatu behar hori, gaur egun gizarte honetan eroso bizi den bati.

—Ez dugu ahaztu behar gure gosearen asetzaren eta bizibaldintza onen oinarria jende txiroaren esplotazioa dela. Gero gainera, ez ditugu gugandik hurbil nahi; beltzak, hegoamerikarrak... Borrokarako hori eta beste hamaika zergati daude. Hezkuntza eta kulturaren bidez oinarritzko balore batzuen defentsa halabeharrezkoa da.

—Zeuk esandako hitzak dira: “Langabezia eta bazterketa soziala iraultzaileak balira, gobernuek aspaldian konponduko zuten arazo hau”.

—Langabeziak jendea desarmatzen du. Erreal bi jasotzen ditu ordainean eta bizkorra sentitzen da langabetua. Hori ez da adimentsu izatea. Luzaroan lan egin ez lortzen

du gizonak indarra, duintasuna eta zintzotasuna. Lan egiten ez bada ezin da ezer errebindikatu, ezin da ezer eskatu, ezin dira esan behar diren gauzak esan. Ez daude bizitzeko mila era. Bizitzeko hiru modu baino ez daude: lapurtu, eskean ibili edota lan egin. Horietako bat aukeratu behar da.

—Gaiaz erabat aldatuz Lucio, ze irtenbide ikusten diozu euskal gatazkari?

—Ez dudala ondo ezagutzen aitortu behar dut. Hala ere, hemen Parisen, pertsona bazuk ezagutu ditut. Euskal gatazka konpondu behar da. Baina hau ez du ezta gobernuak ezta gaur egun eztabaidetan interesatuta dagoen jendeak egingo. Ezinikusi handia dago elkarren artean. Niri ez zait inporta abadeak edota obispokak badira, kontua arazoa konpontzea da. Baina eztabaidatzen egon diren pertsona

horiengandik ez da konponbidea etorriko. Ni, nire aldetik herri eta gizon guztien independentziaren aldekoa naiz, baina ez naiz sekula izan inor hiltzearen aldekoa. Ulertzen? Euskal Herrian jende zoragarria ikusi dut, bere herria maite eta defenditzen duen jendea. Autonomoak izan nahi dutenak, beste batzuk independenteak. Baina uste nuen baino “nazionalismo” askoz gut-

“Mundua alda daiteke; lau katu baino ez dira agintzen dutenak”

xiago aurkitu dut. Gainera pentsaera horrek nora garamatzen badakigu. Begira ezazu nora eraman gintuen nazionalismo espainiarrak! Inor ez da beste inor baino gehiago. Euskalduna, euskalduna da eta kitto. Ez da beste nor baino gehiago, des-

berdina bai. Besterik ez.

—Azkenik Lucio, zertan datza zure bizitza filosofia?

—Bakoitzak berea dauka. Niretzat baliagarria dena, seguru asko ez da beste barentzako baliagarria izango. Gaur egungo gizartean dauzkagun erosotasunak, errazkeriak, milaka gauza horiek zuzenean heriotzara garamatzate. Norberaren uste

sendoen alde borrokatzea da irtenbide bakarra. Hori bai, beti ere jakinik norberaren usteak ez direla zuzenenak. Mundua alda daiteke; lau katu baino ez dira agintzen dutenak. ○

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Urte Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



AXERROTA, 1960.

Getxo, orritzapen ahaztuen bilduma

“Izenburuak nostalgia dakar. Baliteke, baina hori baino gehiago nahi luke. Oroitzapen ahaztuak? Zergatik ahaztuak? Asko, besterik gabe, gure begiek eta ezagutzak eskuragaitz dituelako; beste batzuk, zoritxarrez sarriegi, gure sustraiekin bat datorren mundu bat diseinatzeko kontuan izaten ez ditugulako; zenbait, akaso, ahaztea hobe delako. Iragana, ordea, hortxe dago beti, tinko eta aldaezina baina etorkizunerako irakaspen eta giltzez betea, gauzak, agian, hobeto egingo ditugun esperantzan. Oraina instantean doa eta geroa etorkizun da. Iragana da beti iraungo duena”. Berba hauekin aurkeztu zuen Konrado Mugertzak GETXOPHOTOrako herriko Udal Liburutegiko Agiritegiko argazkiekin prestatu zuen erakusketa. Orrialdeotan erakusketa horren irudi batzuk daukazue.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**




DENDARIÑE BASERRIA, SARRI ALUZOAN (GAURKO ANBULATORIOAREN PLAZA), 1960 ALDERA.




GANADU LEHIAKETA FADURAN, 1950.



VENTURA HOTELA, AREETAKO KALE NAGUSIA.



BIZKAIKO ZUBIAREN ONTZIKA ZAHARRA.



TITAN GARABIA, 1905



BIZKAIKO ZUBIA, 1937KO EKAINA.



AREETAKO BURDINBIDEAREN INAUGURAZIOA, 1887.



ALGORTAKO BABESETXEKO IRAKASLE ETA IKASLEAK, 1955.



ESPAINIAKO MINISTROEN KONTSEILUA, MIGUEL PRIMO DE RIVERA BURU. GETXOKO UDALETXEA, 1929.



PORTUJKO IKASTETXEKO IKASLEAK SOR MARIA CASTAÑERA IRAKASLEAREKIN, 1957.



SARATXAGAKO IKASLEAK, 1953 ALDERA.



ANTXOIA ETA SARDINA SARDA IKARAGARRIA HELDU ZEN ALGORTAKO BADIARA. PORTU ZAHARRA, 1957.



KLUB NAUTIKOA, AREETAKO KAIAREN PASEALEKUA, 1905



ASPAIDIKO PAELLA LEHIAKETA GETXON

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Tellexe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Barton Films-en eskaintza

Urte amaiera arte zine-banatzailleak
estreinako 5 film banatuko ditu euskaraz



Piccolo & Saxo animaziozko filmaren fotograma

Orain dela aste batzuk aurkeztu zituen Barton Films banatzaile zinematografikoak urtea amaitu baino lehenago euskaraz eskainiko dituen pelikulak.

Bilboko zine-banatzailleak gogoratu duenez, "Barton Filmsek beti egin du apostua euskarazko zinearen alde eta hori gauzatu du modu normalizatuan antolatutako euskarazko estreinaldi komertzialen sustapenean, hau da, areto komertzialetan egindakoak, ordutegi eta saio obikoetan...". Halere, banatzaileak onartu duenez, hasieran helduei zuzendutako bikoiztutako pelikulak eskaintzen bazituen ere, "ekimen horrek arrakastarik ez zuela ikusita", eskaintza hori alderatu eta "beste bide bat zabaldu zen: ume eta gazteei zuzendutako filmeen eskaintza, hau bai, esperientzia positiboa izan da". Ostera, azken urteotan, beste euskal ekoiztetxegaz elkarlanean, helduentzako euskal zine eskaintza berreskuratu dute gaur egun. Horren adibide ipini ditu Barton Filmsek euren gain hartu izana hurrengo pelikulen

banaketa: *Obaba, Aupa Etxebeste, Nomadak TX* edota *Eutsi!*...

Bestalde, euskarazko filmen estreinaldiak, oro har, oporraldian egiten direla ondorioztatu du banatzaile bilbotarrak, eta hurrengo helburua ipini diote euren buroari: "ikusleari edozein momentutan euskarazko pelikula bat ikusteko aukera ematea, hau da, gutxienez hilean titulu bat eman nahi dugu hizkuntza honetan".

«Nocturna; The horror bus; Betizu eta urrezko zintzarria; Donkey Xote eta Piccolo & Saxo»

Hala, urte amaiera arte hurrengo filmak eskainiko edo banatuko ditu euskaraz Barton Filmsek: *Nocturna* (Adrian Garcia eta Victor Maldonado), *The Horror bus* (Pieter Kuijpers), *Betizu eta urrezko zintzarria* (Egoitz Rodrigez), *Donkey Xote* (Jose Pozo) eta *Piccolo & Saxo* (Marco Villamizar eta Eric Gutierrez). ○

Musika eta literatura eskutik

II Rock eta Poesia jardunaldiak egingo dira
Kultur Leioan hil honetan



Ruper Ordorikak Quimi Portetegaz batera jardungo du

Pasa den urteko bidari jarraituz, aurten ere Rock eta Poesia jardunaldiak antolatuko ditu Kultur Leioak azaroan. Antolatzaileen iritziz, bakoitza bere arloan, baina bai bata eta bai bestea, rocka eta poesia, estilo eta genero baztertuak, alboratuak edo behintzat intelektualek gutxietsiak izan dira. "Rocka, gaztetasunaren eta asaldunaren sinboloa, fintasunik eta sentiberatasunik gabe azaldu da, latz, batzuetan bortitz, gehiegizko eta probokatzailerik, jakina, inolako poesiarik gabekoa. Dena dela, poesia rockean ezkatutzen da, gitarna distortionatu eta dumbal-kolpe biribilen artean uzkuertuta. Rock artista askok poesia eta letroz jantzi dute euren musika, eta poesia eta letra horiek beltzen

eta hazten lagundu diete belaunaldi askori, edertasunean hezten eta, batzuetan, inkeurketara burbiltzen", irakur daiteke Kultur Leioakok prestatu duten jardunaldien aurkezpenean. Horri jaramon eginez, Kultur Leioan egingo diren bi ekitaldi iragarri dituzte: Ruper Ordorikaren eta Quimi Porteten kontzertua hilaren 8rako (20:30) eta Mikel Erentxunena eta Shuarmarena hilaren 15erako (20:30). Ikuskizun hauetarako sarrerei 15 euroko prezioa ipini diete. Kontzertuak batera, "zenbait mahainguru ere egingo dira eta horietan rockagaz zerikusia duten hainbat idazle, kazetari, zinemagile, marmazkilari... ospetsuk hartuko dute parte". ○

Informazioa: www.kulturleioa.com

diskoak

Sena
Muted
Baga biga



Sena izenpean argitaratu du Muted taldeak bere bigarren diskoa. Metal doinuak, elektronika eta ahots melodikoa eta gogorra uztartzen dute honetan ere. Hamabi abesti gogorrez osaturiko lanak taldekide berri baten ekarpenak jasotzen ditu, Eneko Martinez bilbotarrarenak, alegia.

Terroritmo
Antisocial
Muxik



Gasteizko hirukote honetan Cicatrizekoekin zebilen Diego dago. 80. hamarkadako punk doinu horiek eta rock gogorra berreskuratzen du Antisocial taldeak. Horren adibide, *Follar, Pussys de Tahiti, Muñequita* edota *Amor de rata* bezalako kantak ditugu.

Bizitza halabeharrez...
Erantzun
Carnus Records



Talde zarauztarra Erantzun eta hardcorea jotzen du. Honako hau euren bosgarren diskoa da. 2003. urtean kaleratu zuten lehenengo maketa, eta ordutik honako garapena ikaragarria izan da. Erritmo bizi-bizikiak ekarri dizkigute *Bizitza halabeharrez askatasuna erabiltzera behartuta* da izenburuko lanean.

Rafael Amor > Itzubaltzetan

Rafael Amor (Buenos Aires, 1948) kantautore ezagunak hainbat kontzertu eskainiko ditu gure lurretan hilabete honetan, bere lan berria aurkezteko. Egunerokotasunik galtzen ez duten abesti xarmangarriak batera, argentinarraren *A mi calle* disko berriaren doinuak entzun ahal izango dira Bizkaiko hiriburuan (Bilborock; hilak 9; 21:00; sarrera: 10/12 euro), baina hurbilago ere, eta dagoeneko ohikoa duen legez, Itzubaltzetako gaztetxeko "lagunartean" eskainiko du kontzertua (hilak 10, 20:00; sarrera: 3 euro). Emanaldi horretan bere seme Salvador eta Nun taldeko Eneko Burzako gitarra jolea edukiko ditu alboan. Beraz, kantari borrokalaria, konprometituaren abesti gogoangarriak gozatu gura duenak badaki noiz eta nora jo.

sarean > Silvio Rodriguez

Silvio Rodriguezen (San Antonio de los Baños, 1946) diskografia osoa merkatu digitaletan egongo da eskuragarri. Dagoeneko kantari kubatarraren 20 albumak iTunes dendetan daude. Eskaintza hori La Central Digitalagaz (SGAren eskumendeko SDAren banatzaile digitala) egindako akordioari esker gauzatu da. Arduradunen arabera, La Central Digital banatzaile digital latino independente nagusia da. iTunes dendetan denboraldi bat egon ostean beste denda digital batzuetan ipiniko dute *Silvioren* diskografia.

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00



etorri
eta
ikus!!

MORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Heldu berriak

Azkenengo hilabeteotan plazaratu diren hainbat liburuari begiratzeko tenorea

Badira udagoienean heltzen diren fruituak ere, horregatik liburu-plazako azokek azkenengo boladan eskaini duten uzta helduberrri mamitsuaren gainean begirada pausatzeko momentu egokia dela begitantzen zaigu. Nonbaitetik hasteagatik, eta generoa bereizgarri hartu barik, nonahiko azoketan lekua duen argitaletxetik hasiko gara. Elkar argitaldariak orain dela gutxi aurkeztu ditu dagoeneko banatzen dabil-tzan hurrengo liburuak: *Volksgeist-Herri Gogoa* (Joxe Azurmendi), *Jainkorik bai ala ez* (Edorta Jimenez, Joxe Arregi), *Zeruak eta Ifrentzuak* (Jon Arano), *Elvis jaio zen urtea* (narrazioa; Xabier Mendiguren)... Hilabete honetan helduko ei dira Elkarren

«**Erein, Susa, Txalaparta, Elkar... eta abarren otzarak bete dituzten fruituak**»

altzoan *Etxeko negarra* (Felipe Juaristi; aza-roak 21), *Horretaz* (Txillardeggi; hilak 28) eta *Morto Vivace* (Jon Arretxe; hilak 27).

Ereinen otzaran aurkitu ditugu ondorengo literatur lanak: *Goizalbare argitan* (poesia; Pello Otxoteko) eta *Mozorroaren xarma* (Asel Luzarraga).

Txalapartaren otarretik, besteak beste, Asier Serranoren *Eskuetan mapak* nobela gozatzeko aukera izango dugu; horren al-



Oscar Wilde

botik *Hija de la revolucion* (John Reed) edota *The Profundis* (Oscar Wilde) ere adierazten dituzte nobedadeen artean.

Susa argitaletxeak Miel A. Elustondok prestatu duen *Western Basque Festival* kronika liburuak aurkeztu du oraintsu, baita *Chevrolet tropikala* (Rafa Egiguren) eta *Zubigilea* (Lutxo Egia).

Amaitzeko, Juan Kruz Igerabidek moldatu berri duen *Zaku bete hauts*. *Euskal Herriko maitagarri-ipuinak* kontakizun bilduma saskiratu du Aizkorri argitaletxeak; eta Maiatzek Itxaro Bordaren *Noiztenka* poema liburu berria. Badira beste argitaletxe batzuren erakus-mahaiak deigarri bihurtzen dituzten beste fruitu heldu berriak ere, horiek hurrengo UKazokarako utziko ditugu! ○

liburuak



Dakiguna ikasten
Patziku Perurena
Alberdania

Hizkuntza du abiapuntu Perurenak, hizkuntza bizia, garai batekoa edo oraingoa; oso estilo pertsonala erabiltzen du. Hizkuntzaren barruan ari da autorea liburu honetan, senaren argi-mutila hartuta, mugarrak bila, dakiguna ikasten, edo geneakien, behintzat.



Kilimak!
Nerea Sancho
Erein

6 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduriko liburuak. Norbere sexualitatea eta besteena ulertzeko eta onartzeko beharrezko edukia biltzen ditu. Giza harremanak garatzeko ariketa moduko aktibitateak proposatzen ditu. Eskolan ez ezik, etxean lantzeko ariketak dira.

[kirola]

Errugbi getxoztarra itsasoz bestaldera abiatuko da
Getxo Rugby 21ez beheko gizonezko taldea
Argentinara doa hurrengo urtean



21ez beheko Getxo Rugby taldeko mutilek ateratako egutegiaren irudi bat

Itsasoz haraindiko bidaia prestatzen dabil Getxo Rugbyko 21ez beheko (gazte mailakoa eta senior batzuk) gizonezkoen taldea. Datorren urteko martxoaren 1etik 15era Argentinara joango dira, Buenos Aires, Mar de Plata eta Rosarion ibiliko dira hiru bat errugbi partida jolasten, besteak beste. Lehenengo aldia da errugbi talde getxoztarrek horrelako ekimena gauzatzeko duena, eta bidaia, egonaldia eta beste ordaintzeko zenbait ekintza bururatu zaizkie errugbilarietara.

Aitor Arri jokalariek azaldu duenez, «bertako Euskal Etxeek gonbidatu gaituzte joatera, kulturen arteko harremanak lantzeko eta estutzeko asmoz; halere, guk hango errugbi taldeak jokatzeko asmoa daukagu eta hiru bat partida-edo erdi itxia ditugu honezker». Garai horretan izango litzuketen ligako partidak atzeratuko (edo aurreratuko) dituzte Argentinara joan ahal izateko. Horren albotik, zera gogoratu gura izan du errugbilariak: «klubean beti egon dira jokalariek argentinara asko, adiskide-

tasun handia sortu da gure artean, eta Euskal Etxeek gonbidatu gaituzte, ba aukera polita iruditu zaigu».

Ostera, bidaia, egonaldia eta bestelako gastuak finantziatu ahal izateko zenbait ekimen prestatzeko beharra eduki du taldeak; hala, hurrengoak bururatu zaizkie: taldekideen argazkiak egindako egutegi bat kaleratu

«**Argentinarako bidaia ordaintzeko egutegiak, loteria eta kamisetak dituzte salgai**»

dute (5 eurotan salgai daude), kamisetak egin dituzte (10 eurotan salgai) eta loteria ere salduko dute. Artea merkataritza zentroan mahai bat ipiniko dute produktuak saltzeko eta informazioa emateko (webgunen bat zabaltzeko asmoa ere badute), baina Algortako hainbat tabernatan ere eskura daitezke.

Hala bada, bejondeizuela, *che!* ○

Informazio gehiago: www.getxorugby.org

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA



Lacofris s.l. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

☎ 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Asier Zurinaga > Urdaibaiko patroia

“Taldekideen adiskidetasuna eta herriak azaldutako maitasuna izugarriak dira”



Argazkian, Asier Zurinaga

Erandon bizi da, nahiz eta izatez, seستاotarra izan. 36 urte ditu eta hainbat traineruetan ibilia da: Kaiku, Zierbena, Lutxana, Castro, Arkote eta azkena, Urdaiba. Aurten Bou Bizkaiko koloreak defendatu ditu Patxi Bilbao entrenatzailearen agindupean eta berak gogorarazi digun moduan hiru liga garrantzitsu irabazi dituzte: San Miguel Liga, Euskadikoa eta Bizkaikoa.

—Denboraldi ezin hobe aurtan Urdaiba egin duena: San Miguel Liga irabazi, Euskal Herriko txapelketa irabazi...

—Bai, horrela da. Guretzat oso denboraldi ona izan da 18 arrauketatik erdia irabazi baitugu, eta gainontzekoetan bostetan bigarren lotu gara.

—Denboraldi hasieran uste al zenuten hain fin ibiliko zinetela?

—Bagenekien aurtan osatutako taldea oso ona zela, baina ez genekien zenbat denbora beharko genuen taldekideok bat etorri arte. Kontuan izan behar dugu bakoitza talde ezberdinetatik gatzela. Baina oso azkar hasi

zen taldea ondo aritzen.

—Pena handia Kontxako bandera irabazi ez izana...

—Beno, atzera begira irabazi ditugun guztiak ikusirik, ez du hainbesteko minik ematen. Pena handia izaten jarraitzen du, irabazitakoaz aparte, Kontxako bandera ere irabazi bagenu, “la ostia” izango litzateke. Baina esan bezala, gaur egungo ikuspegitik begiruta, gaitzerdi. Nik beti esan dut irabaztea ezinezkoa bada, bigarren gelditu behar zarela, eta bestela hirugarren.

—Urdaibaiko garaipen gakoa ziabogen irteera azkarra dela esaten da.

—Egia esan, arlo horretan besteak baino azkarragoak izan gara. Abiatzeak gure alde egin du, beraz. Baina nahiz eta egindako ziabogak onak izan direla entzutea asko gustatu, ez nuke hori nabarmendu nahi, azken finean txapelketaren parte baita. Ez da meritu gaineratua: azkarragoak bagara hobeto.

—Hurrengo urteari begira, aldaketarik somatzen al duzu taldean?

—Donostiako estropadan ibilitako tripulazio osoa jarraituko dugula konfirma dezaket. Hala eta guztiz ere, taldean bizpahiru baja izango dira eta klubak beste bi arraunlari fitxatu nahi dituela entzun dut. Laburbilduz, talde titularrak jarraituko du, eransketa garrantzitsu batzuek.

«Nik beti esan dut irabaztea ezinezkoa bada, bigarren gelditu behar zarela»

—Zelan aurkitu duzu zeure burua Bermeoko taldean?

—Oso pozik ibili naiz eta asko disfrutatu dut. Oso gustura ibili naiz taldean zein herrian: entrenatzaileak lehenengo egunetik konfiantza osoa emon eta lan egiten utzi dit; taldekideak adiskidetasun osoa eduki dut; eta herriko giroaz zer esanik ez dago, herritarrek azaldutako maitasuna izugarria da.

—Zein da gogoratzen duzun beste urte on bat?

—Castrok 2001ean lehenengoz Kontxa irabazi zuenean ni bertan nengoen, eta urte hura ere ona izan zen. Urte hartan 11 bandera irabazi genituen; aurtan berriz, 12. Baina esan beharra daukat Kontxako banderako oroitzapen txar bat ere badaukadala, aulkian jezarrita utzi ninduten egun bakarra izan baitzen, eta Donostiako txapelketa irabazi arren, ez da berdina. ○

MAITE DUT FUTBOLA

eta **CANAL+**-en
DEN DENA DAUKAT

CANAL+
19,95 € tik hilabeteon

Orain, bi hilabetez, jardunaldi bakoitzeko partida bat **DOAN**

Abono zaituzte
ERDIAN
BARRIOA

DIGITAL+

Golenkale, 5. Plentzia.
TLF.: 94 677 03 36

URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO
EUSKARA ZERBITZUA
Barrika - Berango - Gorliz - Lemoiz - Plentzia - Sopelano - Urduiz

URIBE KOSTAN ERE EGIZU EUSKARAZ



Hauexek dituzue urte amaiera arte dauden ekintzak

- **Murgiltze-astea.** Mankomunitateko ikastetxeetan DBHn hasten diren gazteei zuzendutako aste berezia.
- **Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina.** Institutuko gazteen artean Gaztetxulo aldizkaria ezagutuko dute eguneko gaiak euskaraz ere lantzeko.
- **Zenbait diru-laguntza, herriz herri.** Euskara ikasteagatik eta udako ikastaroetan parte hartzeagatik udalek dirulaguntzak eskaintzen dituzte.
- **Ikastetxeetarako emanaldiak.** Ikasturtean zehar hainbat emanaldi eskaintzen dira ikastetxeetan euskara bultzatzeko.
- **Birziklatzeari buruzko ipuinak.** Birziklatzea zer den umeei azaltzen dien ipuina, ingurumenarekin konpromisoa hartzen hasteko.
- **Euskararen eguna, herriz herri.** Abenduaren 3a ospatzeko, herriz herri ekintzak antolatuko dira azaroaren azken astean.
- **Txoko ibiltaria.** Euskarazko produktuen katalogoan agertzen diren joko eta liburu asko esku artean ikusteko aukera izango duzue azaroaren amaieran.
- **Euskarazko produktuen katalogoa.** Gabonetan euskaraz oparitu ahal izateko oparien bilduma bat sortu da.
- **Ipuin lehiaketa.** Hamargarren urteurren honetan, gure gazteek beraien irajainazioa noraino hel daitekeen erakutsiko dute.
- **Olentzero inguruko ekintzak.** Gutunak, tailerrak, antzerkia, oparia... ondo portatzen diren txikiak.

**Eta hori guztia euskaraz. Horregatik,
URIBE KOSTAN, KOSTA ALA KOSTA, EUSKARAZ**



'Kao: sumendiko sekretua' bideojokoa zozketatzen dugu



KAO ordenagailuan erabiltzekoa da, 10 urtetik gorako gaztetxoentzat

Zelan parte hartu zozketan?

Oso erraz, bidali e-mail bat uk@aldizkaria.biz helbidera, subjectean KAO idatzi eta zozketan hartuko duzu parte.

Aurreko zozketaren irabazlea: **Eguzkiñe Aurrekoetxea***

* Saria jasotzeko UKren bulegora goizez deitu: 94 491 13 37

proba ezazu KAO
www.elhuyar.org/kao wegunean



La Suiza urdaitegia Ohiko dendetan aurkitzen ez direnak



Argazkian, Sabina Martin

Iribarretsu hartu gaitu Sabina Martinek, La Suiza urdaitegiko jabeak. Etxean bezala sentitzen dira dendara sartzen diren bezeroak; hitz goxoekin ematen die eta Sabinak ongi etorria. Bere aitona iberiar produktuekin lanean hasi eta berak tradizioarekin jarraitzen du oraindik ere. Antzinako Suitzako behi famatuek eman zioten izena dendari: "Oso kalitate onekoak omen dira eta suposatzen dit hortik datorrela izena".

Salamankatik ekarritako urdaiazpiko eta txorizo aukera zabalaz gain, penintsulako zein Europako beste hainbat hermitatik ekarritako produktu zerrenda imajinaezina aurkituko dugu: "Gauza bereziak dira, arraroak". Mango chutneya, boilur moussa, txokolate eta laranja mermelada, gorgonzola gaztaia... ohiko supermerkatuetan aurkituko ez ditugun produktuak. Honez gain, ardo exotikoak ere badituzte: ma-

dari eta txokolate likoreak, limoncelo italiarra etab. Baina ez dira falta Euskal Herriko produkturik ospetsuenak: Tolosako indabak eta teilak, Bakioko txistorra, Lodosako zainzuriak... min gain zorrotzenak asetuko dituzten jakiak.

Bost urte pasa dira denda zabaldu zuenetik eta oso pozik dago Sabina algortaren erantzunarekin: "Jendea gauza berriak probatzeko grina izurritzen da hona". Aurretik prestatutako jakiek ere arrakasta daukate: "Izugarri gozoak dira; zoritxarrez ez daukat gehiago eskaintzeko tokirik". La Suizako produktuak dastatzen dituenak errepikatzen du gehienetan: "Bezero fidel asko ditut". Gabonetako afari zein bazkarietarako eskaerak prestatzen dira, telefono bidez egin daitezkeenak astelehenetik zapatara. ○

Algortako Etorbidea, 63 ALGORTA
Tel.: 94 608 41 56

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asador
Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauzez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezi, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE
usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]


| | | |
|---|--|---|
| <p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Maite zaituen horrek mallo bat baino gehiago isuraraziko dizu. Kontuz, beraz, zure bikotearekiko harremanetan. Bestelakoan, sasoi bete-betean zaude: osasuntsu, baikor... Bizitza gozatzeko prest. Zure esku dago...</p> | <p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Espero zenuena laster ala berandu iritsiko da, baina ez zaitetz hain urduri jar, laguntxo. Ikusiko duzunez, gauza bakoitza bere unean dator. Ixaron besterik ez duzu egin behar.</p> | <p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Lagunekin dituzun asmo berri horien planak aurrera ateratzea merezi du, ongi ateratzeko aukera handiak daude eta. Zure gehiegizko jarduera horien arteko oreka lortzen baduzu ondo ibiliko zara.</p> |
| <p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Gaizki ulertuek ondorio latzak ekar ditzakete; erne zure bikotearekin, harremanak txarrera egin dezakeelako. Baztertu zure zeurekoikeria hori eta gauzak bere onera etorriko dira berriro.</p> | <p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Oso jarrera polita erakutsi duzu azken aste hauetan. Egunero hartzen duzu dutxa, zeure gauzak txukun eta garbi daukazu. Gauza bakoitza non daukazu badakizu. Primeran. Zeure burua non dagoen ere azkenean badakizu.</p> | <p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Oso aukera polita diru kontuetarako, hau da, erosi, saldu, inbertitu, maileguak burutu, burtsa... denetan emaitza ezin hobekak izango dituzu. Ezin aukera hau galdu!</p> |
| <p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Lan egiteagatik ez da ezer gertatzen. Gainera behar duzun dirua irabazteko modu bakarra izan daiteke. Bestela, ez daukazulako ez negarririk egin. Maitasunari dagokionez, garai latzak datozkizu.</p> | <p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Zorte handia izan dezakezu datozen egunotan. Kontua ez da espaloian bostehunekoa aurkitzea. Gauza askoz garrantzitsuagoei buruz ari gara hizketan. Etorbizuna argituko duten gauzez, alegia.</p> | <p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Sasoi bete-betean zaude eta gainera harremanetan ederto moldatzen ari zara azkenengo bolada honetan. Zoritxarrez, zeure gastuak kontrolatzen hasten ez bazara, diru kontuetan gauzak oker daitezke.</p> |
| <p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Inguruko ena eragin txarretatik urrundu, ez zaitetz ergela izan, ekaitza dagoenean onena porturako bidea hartzea izaten da. Denbora gehiago eskaini zeure buruari eta zure lagunak ondo aukeratzeari.</p> | <p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Denen beti irabaztea ezinezkoa denez, noizbait galtzea ez zenuke txartzat hartu behar. Espiritu lehiakor hori baretzen saiatu beharko zenuke, lasaigo biziko zinateke eta. Ez zalantzarik izan, kasu egidazu!</p> | <p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Gorde itzazu ordainagiriak, isunak eta antzeko paper guztiak. Beharko dituzu. Ez dakigu zergatik baina badirudi zure izena lagunen memoria kolektibotik desagertuko dela. Kontuz, erakundeek dirua eskatuko dizute.</p> |

MUNGIÀ
OKINDEGIÀ

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[aitormenak]

ANDONI AIZPURU > kazetaria

“Aizkorri mendiko Urbian artzain izatea gustatuko litzaidake”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Momentu honetan, gizon estresatua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

El día de la marmota, Murrayrena egingo nuke.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez naiz inoren miresle zuzena.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Bai, asko hitz egitea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Gehiegi jatea.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Bai. Parisera orain 15 egun joan nintzen emaztearekin eta bihar bertan berriz joango nintzateke. Beno, eta New Yorkera ere!

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Aizkorri mendiko Urbian artzain izatea gustatuko litzaidake.

Zein da zure ametsetako bat?

Bihar bertan jubilatuta ahal izatea pentsio eder batekin eta pozik.

Eta irakurri duzun azken liburua?

Apaizac hobeto, Jon Maiarena.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Natura gabe, mendian bizi naiz eta goizero arnasa hartu gabe ezin izango nintzateke bizi. Natura behar dut nik; belarra, mendiak ikusi, landaretza, zibilizaziotik kanpo arnasa hartu. Hiri batean ezingo nintzateke bizi.

Euskal Herriko zure txoko kutuna?

Zalantzarik gabe Gabiria, nire sorterrria. Orain nahi beste ez naiz joaten, eta horregatik beti daukat hara joateko gogoia. ○

LABURREAN— ETBko aurpegiarik ezagunenetakoa dugu Andoni Aizpuru. 1964an Gabirian jaioa, irakasle-ikasketak egin eta irakasle izan zen garai batean; kazetari beharretan ere ibili zen, han eta hemen artikulu laburrak idatziz. 1992. urtean Euskal Telebistan hasi zen lanean, eguraldiari buruzko saioetan, hain zuzen. Herri txiki batekoa izanik, eguraldiak bere bizitzan leku handia izan ei du betidanik. Orduetik, *Euskadi Zuzenean* saioa, *Gaur Egun* albistegia, *Bertatik Bertara* magazina eta *Barnetegia* realitya aurkeztu ditu, beti ere eguraldiaren tarte ahaztu barik. Urko Aristirekin batera, *Bi Errepidean* saioan ere ikusi dugu. Orain burubelarri dabil *Horrelakoa da bizitza*-n.

EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

Egon erne!
Leioa euskaraz
zure iritziaren bila

Leioan
euskararen erabilera sustatzeko
zer gehiago egin daiteke?
Eman zure iritzia,
egin zure ekarpena.

LEIOAKO
PLAN ESTRATEGIKOA
2004-2007

* Parte hartzen dutenen artean afari bat zozketatuko da, Soloetxe jatetxean.

